

Enplegurako orientazio zerbitzua HUHEZIn

2012/10/25

Enplegurako orientazio zerbitzuak bi teknikari izango ditu Mondragon Unibertsitatean: **Karmele Manzidor** eta **Jose Manuel Bergaretxe**. Bien bulego nagusia Arrasaten dago, Goi Eskola Politeknikoan, baina azaroaren 6tik aurrera, HUHEZIn ere hasiko dra. Gure artean, horrela banatuko dituzte egunak:

- **Eskoriatzan:** azaroaren 6an goizez eta azaroaren 8an, arratsaldez. Hortik aurrera, bi astez behin, astearte goizetan (09:30 - 12:30) eta ostegun arratsaldetan (14:30 - 17:30),, N-0.11 gelan, Kirol zerbitzuen ondoan.
- **Arexabaletan:** azaroaren 13an goizez eta azaroaren 15ean arratsaldez. Hortik aurrera, bi astez behin, astearte goizetan (09:30 - 12:30) eta ostegun arratsaldetan (14:30 - 17:30),, A-1.2 gelan.

Enplegurako orientazio zerbitzua zuzenduta dago lan bila dabilzan pertsoneri, bide horretan lagundu eta hainbat erreminta eskaintzeko helburuarekin. Bulegoak Lanbide zerbitzuaren bitartekaritza zerbitzua eskaintzen du. Bertan izena emanda, nor bere curriculuma alda dezake. Bestetik, orientazio zerbitzu pertsonalizatua ere eskaintzen du. Nahi dutenek, bi orientatzaileen laguntza jaso eta kontsulta gela erabil dezakete enpleguaren inguruko informazioa jasotzeko. Zerbitzua campus guztietan eskainiko da, nahiz eta bulego nagusia Arrasaten dagoen. Informazioa jasotzeko ordutegien inguruan, jarri harremanetan Josema eta Karmelarekin. Kontuan izan, bestalde, Lanbiden izena emateko, beharrezkoa dela hitzordua egitea, bertara deituta edo teknikarien emailetara idatzita.

Orientazio bulegoa

- **Orientatzaileak:** Jose Manuel Bergaretxe / Karmele Mancidor
- **Telefonoak:** 943 25 33 73 - Luz. 6415 / 943 25 33 72 - Luz. 6414
- **Posta elektronikoak:** jmbergaretxe@mondragon.edu / kmancidor@mondragon.edu
- **Helbidea:** Mondragon Unibertsitatea 4. Eraikuntza 4125, Loramendi, 4; 20500 Arrasate

